

altza

porru!

2019ko azaroa · 75

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.eus



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

2019. URTEA BUKATZEKO EZ DA HITZORDURIK FALTA ELKARTEAREN ESKUTIK

DURANGOKO AZOKA

Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Trikitixa Elkartea Durangoko azokaren 54. edizioan izango da, bere produktu guztiak eskainiz. Gogoratu, bazkide izateagatik %15eko deskontua izango duzuela.

HAZIAK III MAKETA LEHIAKETA

Durangoko azokaren baitan *HAZIAK III* maketa lehiaketaren emaitza aurkeztuko da. Aurkezpena Ahotsenean izango da abenduaren 6an, 17:40etatik 18:10etara. Ondorengo lau taldeak arituko dira: Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta; Iñaki Lizarralde eta Iñaki Etxaide; Beñat Iturrioz eta Xiker Larrea; LARU taldea.

ZITZE BIOGRAFIA LIBURUA

“Soinu txikia, itsasoa lez, zabaldu eta uzkurto egiten da ingurukoei bizitza emateko. Tomas Zitzeren gabarra, hauspoa bezala, itsasgora eta itsasbeherarekin zebilen joan etorrian. Itsasadarrean gora itsasgoran, *Isukitzera* harez beterik; itsasadarrean behera itsasbeheran, egurrez zamaturik. Zelan soinuaren hauspoak datorrenean gauza bat ekarri eta doanean beste bat daraman.

Umezurtz 11 urterekin, itsasmutil soinulari 14rekin, guda-ri 36an, heriotzera kondenatutako preso gerraostean, herri osagile, angula biltzaile, munduko asto-lasterketa txapeldun Platerorekin, jaiotetxetik kanporatua zahartzaroan... Beti soinu txikia besotan, hauspogoran eta itsasbeheran.”


Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Soinuaren Liburutegiaren barruan hamabosgarren alea kaleratu du: “Zitze, Isukitze hauspogoran”. Bi prentsaurreko izango dira, bata azaroaren 23an eguerdiko 12:30ean Plentziako Goñi Portalen eta bestea azaroaren 30ean eguerdiko 12:00tan Gatikako Gazte-txokoan. Aurretik soinujoleen kalejira izango da.

PARTITURA BERRIAK

2019an partitura libururik argitaratu ez den arren, solfeozko eta zenbakizko 12 partitura berri weberatuko dira urte bukaeran.

URTE BUKAERAKO AFARIA

Aurten abenduaren 28an, larunbata, Aiako Aristerrazu Jatetxean antolatu du EHTEk urte bukaerako bazkaria. Izena emateko trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzi edota **943 83 28 28** telefonora deitu (goizez soilik) abenduaren 16a baino lehen.



ELKARRIZKETA: ANDOITZ ANTZIZAR

Nor da Andoitz Antzizar?

12 urteko neska zoragarri baten aita eta, zerurik balego, aspaldi irabazia daukan emaztearen senarra. Soinu txiki ikaslea, soinu txikiaren handitasunaren mireslea.

Nolatan hasi zinen trikitia ikasten?

4-5 urterekin xilofono baten aurrean jarri eta kantu bat atera omen nuen inork ezer esplikatu gabe. Etxekoek, hori ikusita, musikarako gaitasuna nuen ustetan, etxean zegoena jarri zidaten bizkar gainean. Hori diote etxean. Hala ere, nik uste dut, dantzarien etxe batean dantzarako balio ez nuenez... horregatik bideratu nindutela parranda nork jarria edukitzeko.

Zer eman dizu soinu txikiak?

Munduko pertsonak ezagutzea, euskal herritarrak deskubritzea, aniztasuna maitatzea, txikitasunetik begiratzeko ikastea, konprometitua izatea, ... Soinu txikiarekin batera neure burua ezagutzen jarraitzen dut eta nire baitako bazter miresgarri asko aurkitu gabe dauzkat.

Gaur egun Euskal Herriko Trikitixa elkarteko idazkaria zara. Elkarrekin nola ikusten du gaur egungo trikitiaren egoera?

Ez naiz ausartzen Elkarrekin izenean hitz egitera, Elkarrekin bazkide guztiak osatzen baitugu eta ni bat gehiago besterik ez naiz. Nik, Andoitzek, bide berrien bila eta nondik eta nora jo bilatzen jarraitzen duen gizatalde miresgarri bat ikusten dut, oso dinamikoa, euskal kulturaren ordezkari ezinbestekoa eta adierazgarria. Faltan botatzen dut Euskal Herri osoko trikitizaleon harreman sarea indartzea, oraindik ez dugu elkar ezagutzen behar adina, geure zilborrera begira jarraitzen dugu bestearen lanaren ezjakintasunetik, enpatia gutxi sumatzen dut parekoa ulertzeko helduon artean. Baina gazte pila bat dago trikitixaren inguruan eta horrek esperantza ikaragarria sortzen dit, etorkizun oparoa ikusten diot.

Zein proiektu daukazue momentuan esku artean?

Tomas Zitieren biografia liburuen argitaratzekoak gara eta bi aurkezpen egun ditugu udalen laguntza ezinbestekoa eskertzeko. Durangoko azokarekin batera Haziak III diskoaren aurkezpena. Urte hau itxi eta balantzea egin beharra dago urtea balo-



ratzearekin batera, baina dagoeneko burua 2020ean ere jarria daukagu.

Jendeak nola erantzuten die elkarrekin eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei?

Gaur egun informazio pila iristen zaigu inguru guztietatik eta ehunka ekimenen artean Elkarrekin eskaintzak ezkatututa geratzen dira lerroaren bukaeran. Horixe da gure erronka nagusia, nola iritsi jendearengana. Askotan entzun izan dut "A! Baina halako egin zenuten? Jakin izan banu...!". Iru-ditzen zait informazioak bidaltzen ditugun kate begietan eten nabarmenak daudela alde batetik (horretan bazkideok badugu ardurarik), eta gai ezberdinetako informazio gehiegi bestetik. Hor daukagu asmatu beharra.

Asteburu honetan izan dira helduen trikitixa topaketak. Zer moduzko balorazioa egiten duzu?

Alde batetik eta aurreko galderari loturik, Euskal Herri osoko ia 3000 ikasleren artean 14 soilik gerturatu dira Morgara. Non dago etena? Kuriosoa da maila guztietako ikasleak, hasi berriak zein erromerietan edo txapelketetan aritzen direnak, eta baita irakasleak ere etorri direla urte eta denei erantzuten jakin dugu. Bertaratu direnek mezuak bidali dizkigute zein gustura egon diren, zenbat ikasi duten edo zein ondo pasa duten esanez. Beraz etorritako jende kopuruaz kezkatuta, baina egindako lanaz eta eskaintakoaz oso harro.

Trikitilari erreferente bat?

Iker Goenaga.

Gazia ala gozoa?

Gazia.

Inoiz ahaztuko ez duzun erromeria edo kontzertu bat?

Gure aitona Axeigorri etxeko barrikoteetan bertaratutako guztiak dantzan jarriz, izerdiz betetako akelarre etengabea. Zer dago ba ederragorik zure lanarekin besteak zoriontsu egitea baino?

Amets bat?

Bat bakarra idatzi behar dizut? Abenduaren 28an kontaktuko dizkizut guztiak.


XABI SOLANO: BI

Bere bakarkako bigarren lana aurkeztuko du Xabi Solanok Durangoko azokarako. Bi disko bilduko ditu: bata kantu berrieekin eta bestea kantu ezagunen bertsoiekin. Tartean Lajaren abesti bat berari omenaldi txiki bat eginez, Alaitz eta Mainerren *Amets bat*, Maixa eta Ixiarren *Iluntzean* eta beste hainbat abesti ezagun. Nahiz eta bakarkako disko bezala aurkeztu, hainbat musikari eta gonbidatu berezi izan ditu aldamenean: Esne Beltza taldeko musikariak, Arkaitz Miner, Nögen, Sua, AMAK, Jon Maia, Moon Shine Wagon taldeko abeslaria, Arcada-social eta Descontrol taldeetako Hodei, Maren... 2 estudioan grabatutako lana da: lehena Ondara (Mark eta Sousa) estudioan eta bigarrena Usurbilgo Haritz Harreguyre estudioan nahastua.




JOSEBA TAPIA: TRANPALDO

Bere bakarkako zortzigarren lana aurkeztuko du Joseba Tapiak azaroaren bukaerarako. Dena den, 9 laguneko taldea izango du diskoan eta zuzeneko emanaldietan: tronpetan Ion Celestino; saxoarekin Ibon Irixoa; tronboiarekin Asier Ituarte; koruetan Leire Berasaluze, Kristina Aranzabal eta Nerea Erbiti; teklatuetan Jexux Aranburu *Txus*; baxu elektrikoan Iñigo Telletxea; jazpanarekin Iker Uriarte. Diskoaren aurkezpena abenduaren 8an Azpeitiko Soreasu aretoan izango da arratsaldeko 18:30ean eta ETBk grabatuko du. Sarrerak salgai jarriko dira www.kulturaz.eus helbidean.



Argazkia: Peñafiel



TXAPITO GUZMAN ETA IBARRAKO LANGOSTINUEK: “ANIMOS DE VIVIR”

2016an sortutako talde bizkaitarrak bere bigarren lan luzea aurkeztu du. “Pott Produksioak”-eko estudioan grabatutako disko honek, rantsera doinuekin gozatzeko hamaika kantu eskaintzen ditu euskaraz zein gazteleraz. Disko osoa entzungai dago plataforman digitalean baita ohiko salmenta guneetan ere.

TRIKITI JAIALDIAK INDARRA HARTZEN ARI DIRA. HONA 2 PROPOSAMEN!

ALTZOLAKO III. TRIKITI JAIALDIA

Azaroaren 23an arratsaldeko 18:00etan Altzolako elizan ospatuko da jaialdia. Ondorengo lau taldeak igoko dira oholtzara:

- Ander Blasco eta Jon Ander Azkue
- Garixe eta Txibilter
- Irati Arcelus eta Mirari Plazaola
- Mamen Maltzeta, Patxi Aiorga, Nerea Garate eta Joseba Zabalo

Jaialdiaren ondoren afaria izango da. Erreserbak altzolaauzoelkarte@gmail.com edo 688650362 telefonoan.

NAFARROAKO VI. TRIKITI JAIALDIA

Seigarren ediziora iritsi da Nafarroako trikitixa jaialdia. Urtarrilaren 18an ospatuko da Lesakako Harriondoa kultur etxean arratsaldeko 17:30etan. Ibon Gaztañazpik aurkeztuta ondorengo zazpi taldeen doinuak entzuteko aukera izango da:

- Iñorkinak
- Irma Karrera eta Jokin Tolosa
- Imuntzo eta Aintzane Agirrebeña
- Zazpitan lehena joteroak
- Iker Goenaga eta Jon Lasa
- Iñaki Plaza
- Ioar Oteiza, Garazi Erbiti eta Ladis Satrustegi

Sarrerak abenduaren 16ean jarriko dira salgai (12 €) Lesakan bertan Zialdo ostatuan eta Oninart dendan eta erreserba bidez nafarroakotrikitiaelkarte@gmail.com helbidean. Jaialdiaren ondotik afaria izango da Iru-bide ostatuan gaueko 21:00etan (20 €).

IOSU ARRIZABALAGA IZER

Trikiti jotzaileak ginen gu gazteagotan; ikustera eta entzutera joaten ginen plaza horretara, baina, gaur egun, jada, dantzan hasi dira gazte batzuk, eta mugimendu polita sortu du horrek. Beste inon ez dago iganderoko martxa hori, eta toki eroso eta handi bat prestatuz gero ere ez luke funtzionatuko. Aristerrazu da gure plaza. Argi dago plaza honek magia berezia daukala.

2019-10-18. Gipuzkoako Hitzza

MAIXA LIZARRIBAR

Trikitilari askok esan izan dute Aristerrazukoa dela plazarik onena, ohorea dela han jotzea, baina errespaturik handiena sortzen duena da niretzat; gehiegizkoa ere bai, agian. Oso plaza gogorra da, trikitilariak gehien kritikatzaren diren plaza izan delako betidanik. Gustura joan izan naiz, baina egiten duzun hori entzuleak gustuko ez badu...

2019-10-18. Gipuzkoako Hitzza

JOSEBA TAPIA

Urteurrena balantzea egiteko garai egokia izan ohi da. Iaztik hona emanaldi batzuk eskaini dituzue talde bezala. Gehiago ere badituzue begibistan. Grabazioa eta gero jarraipenik izango al du formatu honek?

Oraindik arrankean gaude eta euskaraz ari garen talde gehienoi bezala guri ere garai batean baino askoz gehiago kostatzen zaigu eskaparatean egotea, eta beraz, lan egin beharko dugu jendearen egarria pizteko. Baina ziur gaude lortuko duguna... Ameslaria ni! Hurrengo diskoan pentsatzen ari naiz eta jarraipena izango duela ziur. Ez nago amore emateko.

2019-10-11. Badok ataria.

XABIER BERASALUZE "LETURIA":

Zuk maitasun bila jo izan duzu panderoa?

Bai noski! Maitasuna premiazkoa da. Bai gizaki edo animalia, uneoro maitasun bila gabiltza. Ni ere kasu honetan, liburua idatzi dudanean maitasun bila joan naiz. Panderoa jotzen dudanean ere, maitasunez jotzen dut.

2019-09-27. Euskadi irratia, Arratsean saioa.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA GETXON

Nazioarteko trikitixa jaialdiak ez du hutsik egingo beste urte batez. Getxoko Muxikebarri, Ereaga aretoan, azaroaren 30ean arratsaldeko 19:00etan Eskoziak, Finlandiak eta Euskal Herriko doinuek bat egingo dute oholtza gainean. Euskal Herriko ordezkari izango dira alde batetik Roberto eta Miren Etxebarria eta bestetik Leire Zumeta eta Amaia Arza. Sarrerak salgai Algortako kultur etxean, www.kutxabank.es edo 944310310 telefonoan.

ARISTERRAZUKO DENBORALDI BERRIA MARTXAN

Trikiti zaleentzat iganderoko zita garrantzitsuak martxan dira urriaren 20az geroztik. Igande eta festa egun arratsaldetan (18:30-21:30) erromeria izango da Aiako Andatza auzoko Aristerrazun.

EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI GAZTEEN XXVIII. TXAPELKETA

Abenduaren 1ean arratsaldeko 17:30ean jokatu da finala Zaldibarko frontoian eta sei bikotek hartuko dute parte. Zorte on!

Aurkitu 7 ezberdintasunak

Marraskia / Egilea: Beatriz De La Fuente